

Galdera nola, erantzuna hala

EGUNKARIAK prestatutako inkestei erantzuteko borondate ona azaldu dute arrasatearrek. Hona hemen herriko jaiei buruzko iritzien bildumatxo bat

inkesta

Jende asko ibiltzen al da sanjoanetan? Zer moduzko jaiak iruditzen zaizkizu?

Gorka Bacededo
Zuhaitz Uli

• 11 eta 13 urte •

Asko gustatzen omen zaizkie herriko jaiak. Normalean «oso ondo» pasatzen ei dutelako. Gehien gustatzen zaien ekintza argi eta garbi dute biek ala biek ere: «San Joan sua». Zerbait kentzekotan, aldiz, ez dira ados jartzen; Gorkak danborrada kenduko luke egitarautik, «oso gaizki jotzen dutelako», baina Zuhaitzek bertan parte hartzen duela-eta mantentzearen aldekoa da. Gauetan kalea iritelen ere oraintsu hasi dira, «goizeko ordu biak inguru arte». Gainera, gustatu ere gauez gustatzen omen zaie gehiago.

Frai Rufino
• 70 urte •

Jaiak «behar-beharrezkoak»

dira Rufinoren aburuz, «herria alaitzeko eta otoitz egiteko». Gainera, «santu bati herriaren laguntasuna eskaintzea oso polita da». Bestalde, santamasak ere asko gustatzen zaizkiola dio, «beren nortasuna» dute eta. Beraren ustez, gauean egiten diren ekintzak egunera pasatu beharko lirakeke, eta «txapliguak ere gauez sobran daude». Rufinok ere badu bere proposamena: «Mutilak alpargata eta alkandora zuriakin iritetea eta pilota partiduak jokatzeara». Herriko gazteek jaien antolakuntzan parte hartzeak asko poztzen du Rufino, «denak elkartuta gauzak egitea oso ongi dagoelako».

Miren Aierbe
• 20 urte •

Ordiziako gaztea iaz izan genuen lehenengo aldiz herriko jaietan, eta «oso ondo» pasatu



EGUNKARIA

zuen, gainera. Egunez izaten den giroa ez du ongi ezagutzen, «ni gauean etorri nintzelako». Jende pila omen zegoen orduan, «baina komentatu didatenez, gero eta arrasatear gehiagok alde egiten du opor egun hauek aprobetxatuz». Gauez jende asko badabil ere, ordiziar gazteak jarriko luke ekintzaren bat edo beste, «bestela jendea tabernetan bakarrik ibiltzen delako».

Iker Arostegi
• 19 urte •

San Joan jaietan jende gutxi egoten dela dio, «batez ere azken egunetan, oso egun txarrak direlako, ikasleentzat gehienbat». Hala ere, aurtun asteburuan tokatzen direla-eta jende gehiago etortzea espero du. Koadrilen arteko lehiaketak botatzen ditu faltan, «daudenak eguerdiko 12:00etan direlako eta gauean atera direnak normalean lo egoten direlako ordu horietan». Beraz, «arratsaldera pasatu beharko lirakeke era horretako ekintzak, askoz ere jende gehiago izango litzatekeelako».

JOMA


• Buzogilea • Diru-kutxak • Armairu klasifikatzaileak
Gipuzkoa etorbidea, 32
Tel.: 943 79 16 55 - Faxa: 943 79 79 55 - Telexa: 34253 HME X E

GAZTEENTZAKO MODA DESKONTUAK

Sili Sili
Ondo pasau
jaixak

Iturriotz, 9
Tel.: 943 79 81 82
ARRASATE

Loteria, 4
ALDE ZAHARREAN
Tel.: 94 479 04 06
BILBO



ARREGI

Arte eta Enmarkazioak

Maalako Errebala, 8 - behe 7 - 20500 ARRASATE - Tel.: 943 79 56 44

ARRABALA



Maalako Arrabala, 29 - Tel./Faxa: 943 79 23 40 - 20500 ARRASATE

EGUNEROKO MENUAK
ETA KARTA



ALDAPE
TABERNA

Iturriotz, 41
Tel.: 943 79 70 41
20500 ARRASATE



HOSTAL
MUSAKOLA

JATETXEA

Gipuzkoa etorbidea, z/g
Tel.: 943 79 20 50
ARRASATE

HEMEN

Kafetegia

Egunero kafe berezia

Sebero Altube, 8 - Tel.: 943 79 94 99 - ARRASATE

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

Jai
zoriontsuak
opa
dizkizuegu!!

J. Ramón Otamendi
HARATEGIA

Ferrerias kalea, 20 ARRASATE Tel.: 943 79 62 28

MONTE
TABERNA

Sanjoanetan
ondo pasau!
Maalako Errebala, 2
Tel.: 943 79 20 56 ARRASATE